

erlea-1

1.700en aldizkaria

NEVADA
HOTEL
BAR

BASQUE FOOD
FAMILY STYLE DINNERS
STEAKS *our Specialty*
SERVING TILL 10 PM





Agurra Mikel Laboari Agiña mendian. Argazkia: Arizmendi. *El Diario Vasco*.

Zazpi aldiz elur

BERNARDO ATXAGA



Gipuzkoak Mikel Laboari eskainitako Urrezko Domina jaso zuten haren senitartekoek 2008ko abenduaren 23an. Ekitaldia Gipuzkoako Foru Aldundiko Jargi aretoan egin zen.

Laboaren laudorioak «Zazpi aldiz elur» izena hartu zuen.

Elurra 1

Mikel Laboa hil zen egunean elurra izan zen Arabako leku askotan, eta ume batek esan zuen, albistea eman ziotenean, ederra zela halako egun batean hiltzea. Memoriaren barruetara joanda, umearen esanak Emily Dickinson idazlearen poema labur bat ekarri zidan gogora, «Martxoa maite dugu», *We like March*, zeinen azken lerroek dioten ederra litzatekeela hilabete horretan hiltzea, «zozo urdin bukaneroak bere zeru britainiarrean dabiltzala».

Gauza harrigarria zela pentsatu nuen. Arabako umea eta Massachusettseko sortzaile ehun aldiz argitaratua bat zetozen mezuan: hiltzeko ere egun guztiak ez dira berdinak, batzuk egokiagoak dira. Hobe, ordu horretan, egun eder bat egokitzea. Berdin udaberrikoa izan bere oinetako moreekin –hala dio Emily Dickinsonek, martxoko egunek kolore moreko oinetakoak dituztela–, edo negukoa, bere elur isilarekin. Funtsezkoa da une zailtan edertasuna lagun izatea. Ideia horretan –gauza harrigarri samarra; berriro esanda– bat zetozen Gasteizko umea eta Massachusettseko idazlea.

Elurra 2

1799ko udan, hiru ehizarik ume bat harrapatu zuten Aveyrongo departamenduan, Frantzian. Biluzik zihoan umea, lau oinean ibiltzen zen, ez zen hitz egiteko gauza. Bakar-bakarrik bizi izandakoa zelarik, gizartearen inolako eraginik gabe, animalia zen erdizka, basame bat, *un enfant sauvage*. Victor deitu zioten, eta gaurko egunetik aztertu dutenek ume autista bat izan zela diote, gurasoek mendian abandonatua.

Zazpi urtez zaindu zuen Jean Itard doktoreak. Hizketan erakutsi nahi izan zion, eta hitzaren bitartez gizatasunera ekarri. Baina Victorrek ez zuen erreakzio handirik erakutsi. Bere gelako leiho parean jarri eta hantxe pasatzen zituen orduak, etengabe kulunka gorputza. Baina izan zen salbuespenik.

«Neguko goiz batean –idatzi zuen Itard doktoreak bere kaieran–, elurra bota zuen gaueko azken orduetan, eta Victor bat-batean esnatu zen alaitasun garrasi batekin. Ohetik atera, leihora joan, hurbildu ateraino, ibili gelaren alde batetik bestera egonezin batean, eta, segidan, artean erabat jantzi gabe, lorategira egin zuen ihes. Behin hara iritsita, garrasika hasi zen berriro pozaren pozez, zilipurdika, elurra esku beteka hartuz, eta azkenean ase arte jan zuen adieraztea ere zaila den gutziarekin».

Elurrak eten egiten du eguneroko gurpila, eta hortik datorkio indarra, denok jasotzen duguna eta umeek modu berezian; zuzen eta bortizki, esango nuke. Are zuzenago eta bortitzago Aveyrongo Victor bezalako umeek.

Elurra, alde batetik; bestetik, basame bat, *un enfant sauvage*. Eta tartean?, galde genezake. Tartean ezer ere ez. Ez ideiarik behintzat, are eta gutxiago ideia estetikorik. Ez tradizioaren eraginik; ez, esate baterako, Brueghelek pintatutako paisaia elurtuaren eza-gutzarik edo Kristo aurreko poema txinatarren eraginik. Eta inoren oroitzapenik ere ez, hala nola eduki ditzakegun guk elurra haurtzaroko Eguberriekin lotzen dugunean, edo mendian galdu ginen aldi batekin, edo auskalo zerekin. Soilik bi alde, bi ertz, harremetan: elurra bere indarrarekin, eta Victorren espiritu inozentea edo, nahi bada, hutsa.

Elurra 3

Mikel Laboa medikua zen, psikiatrian espezializatua, eta hogeitaz urteekin egin zuen lan. Aveyrongo Victor bezalako autistak ezagutu eta tratatu zituen garai hartan.


—Nola lotu dituzu zure lanbidea, haur psikiatrarena, eta kantagintza? —galdetu zion Lorea Agirre kazetariak orain hamabi bat urte, lehengo Egunkaria hartan.

Eta berak erantzun zuen:

—Izan dudana lanarengatik aukera izan dut bi alorak jorratzeko. Psikiatrotik nahiko ero fama dugu, agian ikusten ditugunengatik. Eroen artean bizi bazara, konturatzen zara badela beste mundu bat, desberdina... mentalitate hori duzu eta horrek azaldu behar du nonbaitetik eta agian zerikusirik badauka nire kantekin. Haur autistekin eta atzeratuekin egin dut lan eta izan daiteke horren islaren bat egotea nire kanta batzuetan. Komunikazioa-inkomunikazioa abestian adibidez. Ez da kontzientetik egiten dudana gauza, baina uste dut badagoela harreman bat.

Gogora dezagun Komunikazioa-inkomunikazioa delako abestian *La donna è mobile*-ren esaldi pare bat kantatzen dituela bertsio, esango genuke, berezi samarrean: «*La donna è mobile, qual picha al vento, muta d'accento e di pensiero*», dio Laboak. Ondoren, zehaztapen bat egiten du, badaezpada ere: «*non picha de mangiare...*». Norbaitek pentsatuko du oraintxe, hitz horiek bere lekutik atera eta agerian utzi ditudan honetan: «Oso ausarta, Laboa». Egia, baina adierazi daiteke zehatzago, esanez: «Ausarta, Laboa, baina batez ere oso askea, librea».

Askatasunak, artearen alorrean, bi lan eskatu izan dizkio sortzaileari. Lehenik, aurre egin behar izan dio gizartearen presioari, haren eskaera eta zentsura guztiei amore eman



Mikel
Laboa

gabe; bigarrenik, aztertu eta berriro pentsatu behar izan ditu tradizioz jasotako adierazpideak eta haien arauak, akademiarenak bezala akademiak kanpokoak, sarrienik gaiztoenak; ez noski, jostaketa moduko bategatik, baizik eta barneko zein kanpoko errealitatea hobeto eta ederrago adierazteko ahaleginari jarraiki. Halaxe Mikel Laboak. Beste arrazoi batzuen artean, bere psikiatra formazioak, eta bere psikiatra lanak, joera hori hartzen lagundu ziotelako.

Askatasuna behar da, zalantzarik gabe, *La donna è mobile*-ren aipamen bufoaz baliatze-ko. Askatasuna, halaber, 6, 7 edo 10 minutu dirauten kantak egiteko noiz eta ia denak, milioika kanta, 3 minutu ingurukoak diren garaian, merkatuaren legeengatik edota hiru minutu horiek direlako, gure memoriaren egituragatik-edo, kanta baten iraupen egokia. Zer esan, bestalde, bere nahasketei buruz? Ameriketako indioen dantza-erritmoak Zuberorako eta Lekeition grabatutako zurrumurruekin; flamenkoaren doinuak txalapartarekin eta jazzaren soinu berrienekin; Yupanquiren *Piedra y camino*-ren bertsioa Lennon & McCartney-ren *Yesterday*-renarekin; garrasi gordinak sehaska kanta batekin edota koru bateko ahotsekin...

Mikel Laboaren lan askeena argitaratu zuen Elkar etxeak 2007an Lekeitioak izeneko diskoan, eta bertan aurki ditzakegu Cherokee, Gernika, Orreaga eta beste hainbat pieza. Tartean, ospetsuena eta, horrela kalifikatzea zilegi bada, eredugarriena: *Baga, biga, higa*. Manuel Lekuonak jasotako letratxo bat zen Mikel Laboak hartu zuenean; berak eraldatu eta gero, gure musikaren historian sartu den kanta da.

Zumeta pintoreak egin zuen *Lekeitioak* diskoaren azala, eta bertan tramankulu bat ikusten da itsasoan doala eta Mikel Laboa gidari duela. Haren titulua lau hizkuntzatan dator, diskoaren barruan baina aski agerian: «Itsasgizon bakartia gerraontzi batean»; «*Navegante solitario en un buque de guerra*»; «*Un navigateur solitaire dans un vaisseau de guerre*»; «*A lone navigator in a warship*». Ondo dago errepikapena, zeren Zumeta pintoreak, askotan sumatu izan diodan zorrotasunarekin, bete-betea aipatzen baitu egia. Mikel Laboaren askatasuna handia izan zen; emaitza, aparta; baina ibilera ez da lorategi batean zehar egindako *promenade* bat izan.

—Beldurrik izan al zenuen lehen lekeitioa jendaurrean kantatzerakoan? —galdetu zion Lorea Agirrek Egunkariako elkarrizketa hartan.

Berak erantzun zuen:

—Bai, *Baga-biga-higa*-rekin bai. Gero ere bai, egia esan, beti izan dut. Baina lehenengo harekin bereziki [...] Nire apuroak izan nituen, xirixiti mirrixiti kantatu eta jendea barrez sumatzen nuen. Eta batzuetan ere, Gernika kantatzeko momentuan, txistuak entzun ditut, baina aurrera egin dut, estuasunarekin baina aurrera [...].

Mikel Laboak jokatuak bataila artistikoan aldian behineko txistuak ez ziren izan ezer. Egokitu zen uko gaiztoagoekin ere, ikusi zuen bere burua bakartua edota gutxietsia. Badakit gure joera, denona, gure kulturaren nagusi dena, adiskidetzearen aldekoa dela eta heriotzako orduan denok sentitzen garela joan denaren aldeko. Erreakzio noblea da, agian, baina, nolahi den, ez da zilegi pertsona hori gure fantasien euskarri bihurtzea. Eta pertsona hori sortzaile bat denean, ezin diogu bere ardatza, bere trinkotasuna, bere bakantasuna kendu, hartara gure kontzientzia onaren poltsiko batean lau dobla eginda gorde ahal izateko.

Zehatzago adieraziko dut: ezin dira bereizi sortzailea eta bere obra. Marcel Proustek Stendhalen kritikari bati esan zion bezala, ez diote ardura sortzailearen bistako ezaugarriek, auzo ona ala txarra den, hitzuna den ala isila, atsegina ala zakarra; ardura dio zer obra egin duen, eta nola egin duen. Mikel Laboa, badakigu, auzo ona izan zen, pertsona atsegina, batzuetan isila eta beste batzuetan hitzuna; baina orain, bere obra guztiak mahai gainean zabaldua ikusi ahal ditugunean, bere lanarekin lotutako dohainak goraiatu behar direla iruditzen zait; bai behintzat gizartearen aurrean, belaunaldi berriak gogoan hartuta. Horregatik aipatzen dut bere ausardia, behar-beharrezkoa izan zitzaiona bere ideia estetikoak praktikan jartzeko; horregatik bere askatasuna, bere ideia-zabaltasuna. Gogoan izan, beraz, Zumetaren irudia; gogoan izan, hala nahi baduzue, nik neuk egin nion erretratu-poema ere, «Viking».

Viking

Bere begiak distiratsuk dira, urdin-urdinak,
eta hala dirudi, guk kalean ikusten diogun
bere gorputz apur bat makurtu horren barnean
viking bat bizi dela gordeta, viking begi-urdin bat,
urdintasun horregatik ez balitz ikusezin izango litzakeena;
viking bat iparraldeko lur hotz eta bakartietan jaioa,
viking bat itsasoz itsaso oihuka eta harrapaketan ibili zena,
viking bat ikararik gabea, viking bat arrano baten jabe,
viking bat izarrei begiratzen ziena kantatzen hasi aurretik.

Mikel Laboaren askatasuna, ausardia, orotarikoa zen. Bere ideia estetikoak estu-estuan ez hartzeko ere erabili zuen. Ez zen, dogma bati jarraiki bezala, lerro bakarrean mugitu. Ez ahaztu, alde horretatik, *lekeitioez* gain *Txoriak txori* edo *Izarren hautsa* kantak konposatu zituela; kanta klasikoagoak. Ez ahaztu, era berean, kanta herrikoiak bereganatu eta interpretatu zituela, *Haika mutil* edo *Oh Pello Pello* bezalakoak.

Hitz bat kanta herrikoiak direla eta. Maluta bat, esan beharko nuke.

Gaur egun paradoxa dirudi, baina 1962an kanta euskaldun herrikoiak aintzat hartzea oso arraroa zen. Alde batetik, kultura gutxietsi baten emaitzak zirelako; bestetik, ez zelako euskal kanonean sartzen, kasu, *Oh Pello Pello* gitarrak kantatzea. Gogoan daukat oraindik hirurogeiko hamarraldi hartan Bilboko Ekonomia Fakultatean entzun nuena. Koru bat zeukan fakultateak, zeinetan «gazte kezkatu» askok hartzen genuen parte, batez ere hitz egin ahal izateko. Egun batez, Mikel Laboaren lehen disko hura eraman nuen, eta koruko bakarlaria zen tenoreak harrিতuta entzun zuen. Berarentzat, euskal musikaren berezko adierazpena korua zen. Ekonomia Fakultatean komunista asko zegoenez, esan zuen ozenki, bigarren intentzio nabarmenez: «Horretan bai, horretan Errusia bezalako



Mikel
Laboa

Lamia Argazkia. Gara

da Euskal Herria». Mikel Laboak, beraz, viking baten indarrez jokatu behar izan zuen kanta herrikoiak interpretatzerakoan ere.

Beste hitz bat, beste maluta bat. Interpretazioari buruz.

Gonzalo Suarez zinegile eta idazlearekin egokitu nintzen behin, eta galde egin nion zer zen garrantzizkoena pelikula bat egiteko orduan. Uste gabeko erantzuna eman zidan berak: «interpreteak», «aktoreak». Ez gidoia, ez zuzendaria, ez produkzioa.

Musikan ere halaxe dela iruditzen zait. Ederra da berez Haika mutil bezalako kanta herrikoia bat; baina edertasun hori Mikel Laboak ateratzen dio bere interpretazioaren bitartez.

Elurra 4

Yves Bonnefoy Frantziako poeta bat da, matematikaria eta filosofoa, kultura handikoa. 1991n, *Elurraren hasiera eta bukaera* argitaratu zuen, *Début et fin de la neige*, eta bertako poema batean hala dio: «Elurra ari du. Arima, zer behar duzu zuk zure jaiotza eternaletik ez duzuna? Ikusi, hortxe daukazu heriotzarako festa-soinekora ere...». Alde batetik, Aveyrongo Victor haren inpresio antzekoa, zuzena eta bortitza, elurraren aurrean, liburu oso bat gaiari eskaintzera bultzatu zuena; bestetik, berriro ere, Arabako umeak Mikel Laboa hil zen egunean esan zuenaren antzeko ideia: «elurra festa-soinekora da heriotza egunean».

Hala ere, ez da beste berdintasunik umearen eta artistaren artean. Poeta, pintore edo musikari batek eduki dezake, bere askatasuna bitarte, edo beste arrazoiren bategatik, eroaren edo umearen lehen erreakzio bera; baina, haiek ez bezala, berak landu egingo du gaia, eta, azkar esanda, itzuli: poema, koadro edo kanta bihurtu. Halaxe Mikel Laboak.

«*No se me achicopale!*», hots egiten du Mikelek puntu honetan neure buruaren barnetik, ikusten baitu pixka bat kikilduta nagoela gaiarekin eta bukaera aldera jo nahi dudala ahalik eta azkarren. «*Pues sí, compadre, me achicopalo!*», erantzuten diot nik. Baina, azkenean, amore ematen dut eta hiru hitz—hiru maluta— gehituko dizkiot laugarren elur honi.

Lehena, Mikel Laboaren erantzun bat gogoratzeko:

—Komikoak eta pailazoak izugarri gustatzen zaizkit—zioen Mikel Laboak *Egunkaria*-ko elkarrizketan—. Zineman Charlot, Keaton, Cantinflas, eta gaur egun Woody Allen.

Bestalde, Charlie Rivel edo Colombayoni pailazoekin primeran pasatzen dut. Izugarri maite ditut. Baita Antzerkia ere [...].

Bigarrena, Joan Brossa abangoardiako artista katalanaren poema bat gogoratzeko.

Pompeu Fabraren omenaldirako poema bat eskatu zioten Joan Brossari, eta berak hau xe idatzi zuen: «*Disc de homenatge en el Centenari de Pompeu Fabra*». «Omenaldi diskoa Pompeu Fabraren ehungarren urteurrenean. Honaino poema: maisuaren ahotsa entzun nahi izanez gero, diskoa erosi beharko duzu».

Hirugarren hitza, edo maluta, aurreko biak batzeko.

Charlie Rivelen eskultura bakarra, nik dakidala, Bartzelonako Joan Brossa parkean dago. Eta Charlotena ere hantxe dago. Esan nahi baita abangoardiako artista askok umorearekin egin dutela lan, parodiarekin, absurdoarekin, eta jokaera horren oinarrian hizkuntza artistiko eta ez artistikoei buruzko mesfidantza suma daitekeela. Hizkuntza asko, idazteko, pintatzeko edo kantatzeko modu asko, hutsik daude, ez dute ezer egiazkorik adierazten; «Beraz –hala diote artista horiek–, iraul ditzagun, eman diezaiegun buelta beren azpi ustela agerian uztearren». Halaxe Mikel Laboak.

«*Me achicopalo definitivamente*», eta banoa bosgarren eta seigarren elurrerantz; elur azkenak eta laburrak izango dira.

Elurra 5

«Jainkorik gabe ez dago arterik», esan ohi da. Ezin da, noski, baieztapena estu-estuan onartu, nahiz eta kasu askotan –Eduardo Chillidarenean, beste inora joan gabe– estu-estuan ere egia izan. Zabal hartuta, ordea, esaldiak zentzua du. Artearen oinarria ez da goela artearen baitan, dio, baizik eta kanpoan. Artearen oinarria morala dela.

Pentsa dezagun orain, urrutiago joanez, kubismoan edo surrealismoan. Biak ala biak ere garaiko zientziaren aurkikuntzekin lotu ziren –lehena atomoaren fisikarekin; bigarrena psikoanaliarekin–, eta, alde horretatik, helburu ez erabat artistikoak aitortu zituzten. Berriro esanda, moralak.

Eta zer esan Jorge Oteizaz? Alde batera, kezka erlijiosoa; bestera, kezka politikoa, Euskal Herria altxatu nahia.

Mikel Laboak ere izan zuen oinarri hori bere jardunean. Ez zen formaz bakarrik arduratu. Laugarren elurrean umoreaz eta umorearen lanaz hitz egin dut –lan moralaz–; orain bere konpromisoa adierazten duten izen batzuk aipatuko ditut, kantatu zituen hainbat letraren egileenak: Joxean Artze, Xabier Lete, Joseba Sarrionandia, Bertolt Brecht, Xalbador, Salvador Espriu, Atahualpa Yupanqui... Gehitu izen horiei euskal kanta herrikoiak, eta gehiena esana dago.

Elurra 6

Elkarrizketa asko egin zizkieten Daniel Henry Kahnweiler arte-merkatariari, kubismoaren promotore ospetsuari, eta haietako batean Lehen Gerrate Handiaren ondoren gertatutakoa azaldu zuen. Labur, atzera pauso bat eman zuten artistek, eta haien arteko askeenek, eta ausartenek ere, aurreko lana ahaztu eta figuraziora jo zuten. Kanweilerren ustez, artistak bakartu zirelako gertatu zen hori, sakabanatu egin zirelako denak gerraren erruz. «Talderik gabe, interlokutorerik gabe –zioen Kanweilerrek–, artista kikildu egiten da. Galdu egiten du bere buruan duen konfiantza».

Badakigu Mikel Laboak –itsasgizon bakarti bihurtu aurretik– hainbat kide izan zituela arauak hautsi eta adierazpide desberdinak bilatzeko orduan, hala Juan Jose Lasa psikiatra nola Jarrai antzerki taldeko kideak edo Ez Dok Amairukoak; bai Ikimilikiliklik ikuskizunean berarekin ibili zirenak –Artze anaiak, Jose Mari Zabala–, eta bai 60etako euskal artista plastikoak, Oteiza, Ruiz Balardi, Ramos Uranga, Amezttoy eta Zumeta

tartean. Badakigu, baita ere, lagun izan dituela kontzertuetan eta grabazio-estudioetan Iñaki Salvador, Josetxo Silguero eta beste artista asko. Hala ere, Mikel Laboari lagun batek eman zion konfiantza erabatekoa, eta babes intelektuala: Marisol Bastidak. Ez dakigu zer egingo zukeen Mikel Laboak isolaturik egon izan balitz; dakiguna da Marisol Bastidaren laguntzarekin ez zuela etsi.

Eta azken-azken elurra, 7.a.

Haren hitzak, haren kantak, ez daitezela ahaztu, ez daitezela gal, elur gainean txorien hankek utzitako arrastoak bezala...

**Mikel
Laboa**

Gure bazterrak

JOXEAN ARTZE

duela berrogeiren bat urte goiti-beheiti, beste zenbait tokitan eta zenbaitetan egin ohi genuen legez, nonbait ongi bustitako atsalaskari goxoren bat egin eta, adiskide taldetxo bat –ez naiz ongi oroitzen, baina Mikel ere tartean izango zen beste gehienetan lez– Agiña mendira igotzea erabaki genuen, hango harrespil saila, aita Donostiaren gogorantzan eraiki kapera eta Oteizaren harri gotorra dauden tontorrera, hango giro bakanaz gozatzera eta goi hartatik itsaso-lehor-ortzi ia mugagabeak begizta zitezkeenez, begietan ohatu ahala ilhunabarreko ikuspegi guzti hura begiestera...

baina iristen ari ginela, ohartu ginenerako beheko barrendik igo lainoak harturik zigun ikusmenean genuen guztia lanbro lodiz, orduan etorri zitzaigun...

maite ditut,
maite,
geure bazterrak
lanbroak
ezkututzen dizkidanean

zer ezkututzen duen
ez didanean ikusten
uzten

orduan hasten bainaiz
ezkutukoa,
nire baitan bizten diren
bazter miresgarriak,
ikusten